

Lea Artibaiko turismoaren kudeaketa

2007tik aurrera, Lea Artibaiko Garapen Agentziak hartu du Lea Artibai eskualdean turismoa garatzeko ardura. Garapen Agentziako misioa eskualdeko garapen ekonomiko osoa da, eta beraz, eskualdeko biztanleen bizi kalitatea gehitzea du azken helburua.

Garapen Agentzia eskualdeko sei herrialdek osatzen dute: Ispaster, Lekeitio, Ondarroa, Berriatua, Markina- Xemein eta Etxebarria. Bestalde, turismo helburuak lortu ahal izateko, eta Lea Artibai eskualdeko turismo eskaintza modu integralean ezagutarazteko, Lea Ibarra Mankomunitatearekin sinatu da hitzarmen bat 2007ko turismo ekintza plana aurrera eramateko xedez. Hau dela eta, Lea Artibaiko eremu geografikoa era bateratuan sustatuko da hemendik aurrera.

La gestión de turismo en Lea Artibai

A partir de 2007, la Agencia de Desarrollo de Lea Artibai es la entidad pública responsable de la gestión turística de la comarca. Su objetivo final es el desarrollo económico de la comarca y el aumento de la calidad de vida de sus habitantes. Para ello, en 2007 se ha puesto en marcha un plan de actuación cuyas áreas principales de trabajo son: Coordinación y gestión del turismo, dinamización de proyectos, competitividad del sector turístico y promoción integral de la oferta comarcal.



Ekintza planaren lan ildo eta ekintza nagusiak honako hauek dira:

1. KUDEAKETA:

- 2007ko Eskualdeko erronka estrategikoak definitu, helburuak finkatu eta ekintza plana garatu
- Finantzazio iturriak: Dirulaguntzak
- Koordinazio lanak: Eskualdeko Turismo bulegoak
- Turismo sektorearen leihakortasuna: Turismo mahaia
- Turismo garapenerako Batzordea osatu: Lea Artibai - Lea Ibarra

2. DINAMIZAZIOA:

- Herri mailako dinamizazio proiektuak eskualde ikuspuntutik landuak (zerbitzuen kartaren baitan)

3. SEKTOREAREN GARAPENA:

- Trebakuntza plana definitu: Jardunaldiak.
- Dirulaguntzen informazio sistema garatu.
- Enpresa berrien sustapena
- Prospektiba lanak eta enpresen arteko sinergiak (elkartea).
- Merkataritza eta turismo sektoreen arteko sinergiak.

4. SUSTAPENA EDO PROMOZIOA:

- Lea Artibai Eskualdeko marka sustatu
- Komunikazio plan bat garatu
- Sustapen materialak: Foiletuak, boletinak, prentsa oharrak...
- Bizkaia Natural markapean turismo azoketan parte hartu.
- Sektorearen sustapena eta harremanak (boletina)
- Cicerone, Informazio puntuak eta web orria

URKO ibilbidea, ibai-ertzen interpretazio gunea

Urko ibaia, Urko mendian hasi eta Artibai ibaian bukatzen da, Markinan. Bere ertzak, Markina- Xemeindik Barinaga arte, oso interesgarriak dira, eta gauzatu den ibilbideak aukera on bat ematen digu dauzkan baliabide naturalak, kulturalak eta historikoak turismo balioan ipini eta ezagutarazteko. 2006 urtean egindako azterlanaren lan ildoak jarraituz, ibilbidea turismo balioan jarri da, mota guztietako kolektiboak erabili ahal izateko. Bete diren ekintzak hauek dira:

- Ibilbidea egokitzeko asmoz, interpretazio panelak jarri dira (Braille alfabetoan baita ere).
- Ibilbiderako logotipo bat sortu eta liburuxka ere egin da.
- Cicerone informazio sistemaren bost puntu berri jarri dira martxan.
- Bisita gidatuak egiteko gidoia eta eskoletara zuzentzeko materialak prest daude.



Urko ibaia, Urko mendian hasi eta Artibai ibaian bukatzen da

Bisitarien datuak

Euskadi, Nafarroa, Katalunia, Madril, Frantzia, Erresuma Batua eta Alemaniatik datoz

2007ko urtariletik maiatzaren 31 arte 6643 bisitari pasa dira Ondarroa eta Lekeitioko Udal Turismo Bulegoetatik, 5930 Lekeition eta 713 Ondarroan. Lekeitioko bulegoko datuen arabera, 2006 urtean epe berdinean etorri ziren bisitariekin konparatuz, aurten ia 2000 bisitari gehiago pasa dira Lekeitioko Turismo Bulegotik. Jatorriari dagokionez, Euskadi, Nafarroa, Katalunia, Madril, Frantzia, Erresuma Batua eta Alemaniatik datoz, gehienetik gutxienera. Bisita gidatuen kontura, 14 gauzatu dira eta guztira 806 pertsonen parte hartu dute, gai desberdinak landuz: Ziortza, Markina- Xemein, Arretxinaga, Ondarroa (alde zaharra, portua, kontserberak) eta Lekeitio (alde zaharra, eliza, erdi arokoa).

Kultura ondarearen ezagutzera ematea 2007

BFAko Kultura Sailak "Bizkaiko ondarea, denon eskura" programa dauka martxan. 2006. urtean Ziortzako monastegian eta Bolibar bertako elizetan egin ziren lanak dau-de erakusgai apirila eta abuztua bitartean. Bolibar herria bera eta Ziortzako monaste-riean zehar izaten da bisita.

ORDUTEGIA	ZIORTZA	BOLIBAR
Asteazkenetan:	11:00tan	12:00tan
Larunbatetan:	11:00tan	12:00tan
17:00tan	18:00tan	
Igande eta jaiegunetan:	11:00tan	12:30tan

Informazioa, telefono hauetan: 946164114 eta 946844017



Hausnarketak

Turismoaren Mundu Erakundeak (WTO-TME), Brundtland txostena hartuta, honela definitzen du Turismo Iraunkorra konzeptua:

"Turismo Iraunkorraren garapenak turisten eta hauek bisitatzeko dituzten eskualdeen beharrezko erantzuna eman behar die. Halaber, etorkizuneko aukerak hobetu eta babestu behar ditu. Turismo iraunkorrak baliabide guztiak kudeatzen ditu, eta hau egiteko modua zera da: estetika, gizarte eta ekonomi beharrezkoak bete behar dira, eta, honekin batera, kultur baliabideak, ingurugiro prozesuak, biologi aniztasuna eta bizitzeko mantentzeko euskarriak errespetatu behar dira."



La Organización Mundial del Turismo (OMT), en base a la definición de desarrollo sostenible establecido por el Informe Brundtland, afirma que:

"El desarrollo del Turismo Sostenible responde a las necesidades de los turistas y de las regiones anfitrionas presentes, a la vez que protege y mejora las oportunidades del futuro. Está enfocado hacia la gestión de todos los recursos de manera que satisfagan todas las necesidades económicas, sociales y estéticas, y a la vez que respeten la integridad cultural, los procesos ecológicos esenciales, la diversidad biológica y los sistemas de soporte de la vida"

Agenda ●●●

TURISMO BULEGOAK

- Lekeitioko Turismo Bulegoa
Goi denboraldia: Ekainaren 15etik irailaren 15era.
10:00-14:00 ; 16:00-20:00 (Egunero)
Tel. 94 684 40 17
turismo@lekeitio.com
- Ondarroako Turismo Bulegoa
Goi denboraldia: Ekainaren 15etik irailaren 15era.
10:00-14:00 ; 16:00-20:00 (Egunero)
Tel. 94 683 19 51
turismobulegoa@ondarroakoudala.net

OSTATU BERRIAK

- HARIZPE NEKAZALTURISMOA (Ondarroa)
- ALTUENA LANDETXXEA (Amaroto)

DIRULAGUNTZA DEIALDIAK

- Eusko Jaurlaritzak: MET: Turismo sektoreko oinarriko ekipamenduak modernizatzeko inbertsio proiektuak: Informatika-aplikazioak, kutxa erregistratzaileak, salmenta puntuetako terminalak, ostalaritzako jarduerekin zuzenean lotura duten elikagaiak bero nahiz hotz kontserbatzeko sistemak: barrako erakustegiak eta elikagaiak tratatzeko gailu bereziak, ardoa kontserbatzeko armairu klimatizatuak eta aire girotu edo klimatizazio aparatuak. 2007ko irailaren 14 arte.
- Eusko Jaurlaritzak: PCT: Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpo proiektzio handia duten jazoerak sustatzea eta lehen eskaintzarekiko berritzaileak diren turismo-produktuak sortu eta merkaturatzea. 2007ko uztailaren 13 arte.

TURISMO BALIABIDEAK

Playa de Ondarzabal txalupara bisita gidatuak ekainaren 29an hasiko dira martxan. Orduetgia: Asteartetik igandero 17:00tatik 21:00tara. Taldeek Lekeitioko Turismo bulegoan (94 684 40 17) ahal dute erreserbatu bisita goizez izatea nahi izanez gero.

INFORMAZIO GEHIAGO

Lea Artibaiko Garapen Agentzia
Turismo Arloa
Sabino Arana, 14, 48280 Lekeitio
Tel: 94 6034111 • Fax: 946034113
e-mail: nirusta@leargarapen.org
www.learjai.com • www.leaibarra.com

